

METODOLOGIA-FITXA

HONDAKIN ARRISKUTSUEN ESTATISTIKA (090209)

Identifikazioa

Eragiketaren izena.

Hondakin arriskutsuen estatistika.

Eragiketaren kodea.

090209 (3/2014 Legea, azaroaren 13koa, 2014-2017 Euskal Estatistika Planari buruzkoa).

Erakunde arduraduna.

Ingurumena eta Lurralde Politika Saila.

Beste erakunde partaide batzuk.

EUSTAT. Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística.

Gai-arloa.

Ingurumena

Maiztasuna.

Urtekoa.

Eragiketa-mota.

Zentzua.

Metodologia datuen jatorriari jarraiki.

Administrazio izaerako informaziotik abiatuta lortutako datuak.

Helburuak

Hondakin Arriskutsuen Estatistikaren helburu nagusiak hauek dira:

- Euskal AEn ekoiztutako edo kudeatutako hondakin arriskutsua zenbatekoak eta nolakoak diren zehaztea.
- Hondakin arriskutsuen esportazioari eta iportazioari buruzko datu kualitatiboak eta kuantitatiboak.

Aztertze aldagai nagusiak

Hondakin arriskutsuen kudeaketaren mota:

- Deuseztapena
- Errausketa
- Birziklatzea
- Balio energetikoa

Kudeatzailearen jatorria:

- EAEko kudeatzailea
- EAetik kanpoko kudeatzailea

Hondakin arriskutsuen esportazioak, tonak:

- Beste Autonomia Erkidegoetara
- Beste herrialdetara

Hondakin arriskutsuen inportazioak, tonak:

- Beste Autonomia Erkidegoetatik
- Beste herrialdetatik

Hondakin mota: EHZ kodeak

Eremua

Populazio-eremua:

EAEn sortutako edo kudeatutako hondakin arriskutsuen.

Lurralde-eremua:

EAEko eta hiru lurralde historikoetako balio esanguratsuenak jasotzen dira.

Denbora-eremua:

Jasotako datuak urtean zehar erregistratutako jardueren ingurukoak dira.

Galde-sortak

Zabalkundea

- [Internet: Laburpen taulak. Organo Estatistikoa.](#)
- [Internet: Taula estatistikoak Eustat.](#)
- [Dokumentua: Euskal Autonomia Erkidegoko hondakin arriskutsuen inbentarioak](#)